



2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko maiatzaren 11ra bitartean jaiotako haurrendako, bi egun horiek barne. Jaiotza justifikatzea DERRIGORREZKOA DA (maiatzaren 12ko 23:59ak arte)



Otsailak 23 - martxoak 6: BEHIN-BEHINEKO IZEN-EMATEA

- ONLINE: sartu <https://educa.navarra.es/>
- PRESENTZIALA: TTIPI-TTAPA HAUR ESKOLA, IBAIALDE PASALEKUA 1
 - ASTEARTETIK OSTIRALERA 10:30-13:00. Orduategiz kanpo, hitzordua eskatu 948231593.
 - Presentzialki egitekotan eskaera orria eta dokumentazio GUZTIA ekarri behar da.

Apirilak 22: AGIRIAK ETA PUNTUAK KONTSULTATZEA, EDUCAN

Apirilak 23 - 29: ZUZENKETAK EGITEKO DATAK:

Aranguren Ibarreko Udalari zuzendutako eskabidea aurkeztuz.

Maiatzak 5: BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Maiatzak 6-12: ERREKLAMAZIOAK ETA UKO EGITEAK

Maiatzak 15: AURRENEKO BEHIN BETIKO ZERRENDA

Maiatzak 18-22: MATRIKULA TTIPI-TTAPA HAUR ESKOLAN, IBAIALDE PASEALEKUA 1, Orduategia 11:30-13:30.

Matrikula egiten ez bada, aukeratutako eskola guztietan ikaspostua galtzen da. Prozesu honetan "hautatutakoa hobetzea" aukera dezakezue.



DOKUMENTAZIOA

ESKAERA AURKEZTEKO DERRIGORREZKOA:

- Gurasoen edo legezko ordezkarien NANA, AIZA, pasaporteak.
- Familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria.

BAREMAZIOA EGITEKO EDO PUNTUATZEKO BEHARREZKOA:

- Aitortza: Familia-unitatearen 2024ko PFEZa. PFEZaren aitortpena egitera behartuta ez dauden pertsonak, aitortpena egitera behartuta ez egotearen Ogasunaren ziurtagiria eta 2024ko diru- sarreraren egiaztagiria. 2024ko diru-sarrerak ezin badira justifikatu: egoera sozioekonomikoari buruzko zinpeko adierazpena eta gizarte-txostena.
- Errolda-agiria edo -orria.
- Lantokiaren enpresa-ziurtagiria edo alta ekonomia-jardueren gaineko zergan eta irekitzeko lizentzia. (autonomoak)
- Bi gurasoen lan-bizitzaren txostena, eszedentzia ziurtagiria edo ikasketa edo ezintasun ziurtagiria.
- 2026-2027ko ikasturterako eskolan matrikulatutako anai- arreben egiaztagiria.
- Desgaitasun ziurtagiria .
- Genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima egiaztagiria.
- Gurasoetako batek edo biek haur eskolan lan egiten dutenaren egiaztagiria.
- Familia ugariaren egiaztagiria.
- Ikasleen familia harrera egiaztagiria.
- Familia gurasobakarra izatearen egiaztagiria.
- Eerditze anizkoitz baten bidez jaio izanaren egiaztagiria.
- Haurraren mediku-txostenak edo/eta Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren txostena .
- Hitzarmen arauemailea banantze epaiketetan.



HAUTATZEKO AUKERAK

GEHIENEZ 6, ez dago gutxienerorik.

- Nafarroako edozein haur-eskola publiko aukeratu dezakezue.
- Garrantzitsua da LEHENTASUN- ORDENEAN jartzea.
- HIZKUNTZA-MODALITATE ETA JARDUNALDI BAKOITZA aukera desberdin bat da.

Aurten, berrikuntza gisa, Udalaren bi haur eskolen artean aukeratu ahal izanen da. Eskola bakoitza aukera bat izanen da, eta lehenengo aukera gisa markatzen duzuenak lehentasuna izanen du. Hala ere, Aranguren Ibarreko Udalaren helburua da guztiontzat plazak bermatzea izanik, Udalak beretzat gordetzen du ikasleak bi eskoletako edozeinetan birkokatze ahalmena, datorren ikasturterako zerbitzua antolatzeko beharren arabera eta plangintzak zehazten duenaren arabera.

ARANGUREN IBARREKO HAUR ESKOLETAKO aukeren artean aukeratzeko:

- TTIPI-TTAPA, euskera
- TTIPI-TTAPA, gaztelania
- KULUXKA, euskera
- KULUXKA, gaztelania

Bi eskoletan, lanaldi bakarria aukeratzen da: LANALDI OSOA

ORDUTEGIAK:

- SARRERA: 08.00etik 09:30era
- IRTEERA: 15.00etatik 16:15etara

Ordutegi osoak jantoki-zerbitzua barne du

Legez, haurra zentroan gehienez 7 orduz egon daiteke

PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIO OSOA:

[16/2024 FORU AGINDUA, martxoaren 1ekoa.](#)

[06/2026 EBAZPENA, urtarrilaren 22koa.](#)

